

2012
**Koaderno
sindikalak**
Juridikoa

**“Aurrekontu-egonkortasuna
bermatzeko eta lehiakortasuna
sustatzeko neurriei buruzko
20/2012 Errege Lege
Dekretuak”
ezarritako murrizketen inguruko txostena
(BOE 14-07-2012)**

>prestakuntza



**“Aurrekontu-egonkortasuna
sustatzeko neurri buruzko 20/2012
Errege Lege Dekretuak”
ezarritako murrizkiten inguruko txostena
(BOE 2012-07-14)**



Aurkibidea

SARRERA

1.- PERTSONA LANGABEEN KOLEKTIBOAREN BABES SOZIALERAKO ESKUBIDEEN AURKAKO ERASOA.

2.- FOGASA-REN BERMEEN MURRIZKETA.

3.- SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEEN NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO ESKUBIDEAREN ETA LAN

BALDINTZEN AURKAKO ERASOA.

4.- FISKALITATE ERREGRESIBOA: BEZ-AREN IGOERA.

5.- MENDE TASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ESKUBIDEEN MURRIZKETA.

6.- ORDUTEGI KOMERTZIALEN LIBERALIZAZIOA.

7.- BADAGO ALTERNATIBARIK. HORREGATIK, IRAILAREN 26AN, GREBA OROKORRA.

Sarrera

Berriz ere, **Estatuaren erreforma estruktural eta basati bat** dugu aurrez aurre. Estrukturala, ez direlako neurri koiunturalak, ezta fase ekonomiko batean soilik aplikatzeko neurriak ere. Estatuaren eredia eraldatzeko erreformak dira.

Estatuaren rola bera eraldatzen dute; izan ere, aurrerantzean bere zeregin bakarra izango da ekimen pribatuari laguntzea eta kontrol soziala bermatzea. Horretarako:

- Sektore publikoa suntsitzen ari dira, beraren eginkizun guztietan (arautzailea, motor ekonomikoa, zerbitzuen prestazioa eta babes soziala). Horretarako, sektore publikoko langileen lan baldintzei eta negoziazio kolektiborako eskubideari erasotzen diete.

- Hartzen diren neurriek lehengo helburu berbera dute, hots, gutxi batzuek ondusunak metatzen eta gehiengo sozialaren kontura espekulatzen jarraitu dezatela: BEZa igotzea, amnistia fiskal baten ostean.

- Lan erreformek enplegua suntsitzen laguntzen duten bitartean, langabeen kolektiboa iruzurraren susmopean jartzen dute, beren prestazioen murrizketa justifikatzeko.

- Mendetasun egoeran dauden pertsonen eskubideak murrizten dira, eta horrek badu eragin berezia emakumeen kolektiboarengan, zeren horrekin zerikusia duten zereginak beraren bizkar geratzen baitira.

- Esparru juridiko-politikoaren eraldaketa inposatzen dute dekretuz, erabat zentralizatuta eta uniformizatuta dagoen eredu bat ezartzeko. Bukatutzat ematen dute Autonomien Estatua, edozein politika propio aplikatzeko bidea erabat itxiz.

Kontua da eredu kapitalista basatiena inposatzea. "Ahal duena salbatu dadila" da, Estatuak ez duelako ez erregulatu eta ezta babesten ere. Krisi hau ekarri duten politika neoliberaletatik oraingo egoera -langabezia, bazterketa soziala eta pobrezia- betikotuko duten politika ultraneoliberaletara pasatu gara.

Erreforma hauekin ezinezkoa da hazkundea; aitzitik, enplegua suntsitzeko eta gizarte osoaren bizi-baldintzak okerragotzeko fase berri bat iragartzen dute. Izan ere, soldadak eta prestazioak murrizten dira prezioak igotzen diren bitartean, eta ez da bermatzen oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko bidea; beraz, hori pobrezia-aren sinonimoa da. Horixe da, besterik ez.

Jarraian, "aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sutatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko Errege Lege Dekretuaren bidez (BOE 2012/07/14) Madrilgo gobernuak ezarri dituen neurri esanguratsuenak azalduko ditugu.

1. Pertsona langabeen kolektiboaren babes sozialerako eskubideen aurkako erasoak

Bata bestearen ondoren egin diren erreformek, enpleguaren sorrera lehenetsi beharrean, iruzurraren susmoetan jarri dute pertsona langabeen kolektiboa, prestazioen zenbatekoa murriztuz eta prestazioak eskuratzeko bidea oztopatuz, horren bidez "enpleguaren bilaketa aktiboa" sustatzen dela argudiatuta.

Horrez gain, esan daiteke orain ezarri diren neurriak diskriminatzaileak eta sexistak direla, zeren aldi baterako kontratuekin lan egiten duten pertsonen kolektiboa zigortzen baitute bereziki, langabezia-prestazioa eskuratzeari eta beraren zenbateoari dagokienez, eta kontuan hartu behar da kolektibo horren partaide gehienak emakumeak direla.

Hartutako neurriak hauexek dira:

- **Langabeziatik kobratzen den prestazioaren zenbatekoa murriztea.** Aurrerantzean, langabezia-prestazioa oinarri arautzailearen % 70 izango da lehenengo 180 egunetan, eta % 50 (orain arte, % 60 zen) 181. egunetik aurrea. Neurri horiek 2012ko uztailaren 14aren osteko langabezia egoera legalei aplikatuko zaizkie (egun horretan sartu zen neurria indarrean).

Gainera, langabezia-prestazioa kobratzen den bitartean, pertsona langabeak gizarte segurantzari egingo dion ekarpena ez da % 35 murriztuko, orain arte gertatzen zen bezala –proportzio hori Gizarte Segurantzak ordaintzen zuen-. Orain, xedapen hori indargabetu denez, langabezia-prestazioa kobratzen den bitartean, gizarte segurantzari ordaintzen zaion % 4,7ko kotizazio osoa pertsona langabeak deskontatuko zaio, eta pertsona horrek % 100 ordainduko du (lehen, % 65 ordaintzen zuen).

- **Gutxieneko gizarteratze errenta eskuratzeko muga zorrotzagoa.** 45 urtetik gorako izateaz eta enplegu-eskatzailerik gisa gutxienez urtebetez erregistratuta egoteaz gain, orain beste baldintza bat bete behar da, hots, langabezia-prestazio edo –sorospen kontributibo bat aurretik agortu izana. Betekizun berri horrek kanpo uzten ditu autonomoen erregimenean edo etxeko langileen erregimenean lan egiten duten eta langabezia-prestazioa ezin eskura dezaketen pertsonak.

- **52 urtetik gorako pertsonentzako sorospena 55 urtetik gorakoentzat izatera pasatu da.** Horrek zigortzen du enplegu berri bat eskuratzeko zailtasunak dituzten langabeen kolektiboa; izan ere, langabezia-prestazioa agortu ondoren, sorospen horrekin soilik moldatu behar dira erretiratzeko adinera iritsi arte. Sorospen horren zenbatekoa IPREMaren % 80 izaten da, hots, 426 euro/hilean 2012an (IPREM = ondorio askotarako errenta adierazle publikoa).

Adina atzeratzeaz gain, baldintza hauek bete behar dira sorospen hau eskuratzeko:

- Aurrerantzean, pertsona onuradunen ondarearen balioa kalkulatzeko, diruaren interes legalaren % 100 hartuko da erreferentziazat (lehen, % 50 zen), errenten ondorioetarako, ohiko etxebizitza kanpoan utzita.

- Sorospenaren iraupena laburtzen da. Aurrerantzean, erretiro-pentsio kontributiboa (edozein modalitatetan) eskuratzeko ahalbidetzen duen adina betetzen den unera arte soilik iraungo du sorospenak. Orain arte, sorospenak irauten zuen erretiroaren prestazio kontributiboa eskuratu ahal izateko kasu

bakoitzean exijitzen zen adin arruntera iritsi arte. Horren ondorioz, erretiro aurreratua hartzearen edo adin arrunta bete arte itxarotearen arte aukeratu ahal zuten pertsonak aukera hori galtzen dute orain, horrelako kasuetan. Izan ere, orain aukera hauek izango dituzte: erretiro-pentsio txikiak kobratzea –zenbateko txikiak, adin arruntera iritsi baino lehen erretiratzean deskontu mardulak aplikatzen direlako– edo sorospen eta kotizaziorik gabe itxarotea, erretiro-pentsio osoa eskuratzeko exijitzen den adin arruntera iritsi arte.

- Kotizazioaren zenbatekoa jaisten da sorospena kobratzen den bitartean. Aurrerantzean, une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko kotizazioa izango da; orain, 740 euro dira hilean (lehen, % 125 zen gutxieneko tipotik, hots, 935 euro hilean). 52 urtetik gorakoentzako sorospen hori onartuta duten pertsonen gutxieneko oinarriaren % 100era jaitsiko zaie kotizazioa 2012/08/1etik aurrera.

- 720 eguneko prestazio kontributibo bat agortu duten 45 urtetik gorako pertsona langabeentzako sorospena desagertzen da. Hala, sorospena kasu honetan bakarrik mantenduko da: 720 eguneko prestazio kontributiboa neurriak indarrean sartu aurretik (2012/07/14) agortu duten 45 urtetik gorako pertsonentzat.

- Aldi baterako kontratazioa penalizatzen da:

- **Prestaziora iristeari dagokionez:** Orain, "bere langabezia egoera legalaren unean aldi baterako kontratu bat edo batzuk mantentzen direnean, prestaziora iristeko betekizunak betetzei dagokionez soilik, kontuan hartuko da zer lanetan galdu den enplegua aldi baterako edo behin betiko, edo zer lanetan murriztu den lanaldi arrunta. Hau da, lan hori edo horiek soilik hartuko dira kontuan". Horrek esan nahi du, adibidez, pertsona batek aldi baterako kontratu batzuk baditu eta horietako bat amaitzean urtebeteko kotizazio-aldia beteta ez badu –exijitzen den gutxieneko kotizazio-aldia da hori-, ez duela eskubiderik izango langabezia-prestazioa jasotzeko. Orain arte, osoko kotizazioak hartzen ziren kontuan, bukatzen zen kontratuaren antzintasuna zehazki zehazki ere.

- **Zenbatekoari dagokionez:** aldi baterako lan bat galtzen duten pertsonen langabezia-prestazioen zenbatekoak proportzionalak izango dira lan horretan betetako lanorduekin, proportzio hori sorospenari ere aplikatuko baitzaio aurrerantzean. Orain arte, langabezia-sorospen asistentziala IPREMaren % 80 izaten zen gutxienez (426 euro), edo % 107 edo % 133, langileak seme-alabarik baldin bazuen bere ardurapean, langabezia egoera aldi baterako kontratu batetik ondorioztatzen bazen ere –hau da, kasu horietan ere-. Orain, baina, sorospenaren zenbateko txiki hori are gehiago murriztuko da, zeren kontuan hartuko baita langabezia eragin duen kontratu partzialaren lanaldia.

- Sorospena kobratzen den bitartean, 55 urtetik gorako etenakoko langile finkoen kotizazioa murriztuko da. Izan ere, aurrerantzean kotizazioaren gutxieneko tipoaren arabera kotizatuko dute (lehen, % 125 zen).

- Enplegu-zerbitzu publikoek kontrol ahalmen handiagoa eta eskumen gehiago izango dituzte prestazioaren ordainketa prebentiboki eteteko.

- Pertsona onuradunek ez badute betetzen eskatutako dokumentazioa ezarritako epearen barnean aurkezteko betebeharra, erakunde kudeatzaileak esku-mena izango du "beharrezkoak diren neurriak hartzeko, prestazioen ordainketa badaezpadako izaeraz etetearen bidez", onuraduna agertu eta eskubideari eusteko ezarrita dauden betekizun legalak betetzen dituela egiaztatzen duen arte.

- Bizilekuz aldatuz gero, pertsona onuradunek helbide berria jakinarazi behar dute, jakinarazpena jasotzeari begira. Horrez gain, "ez badago bermatuta jakinarazpenak jasoko direla prestazioen eskatzaileak edo onuradunak adierazitako helbidean", pertsona horrek beharrezkotzat jotzen diren datuak eman beharko dizkio, nahitaez, enplegu-zerbitzu publikoari, jakinarazpena bitarteko elektronikoetatik egin ahal izan dadin. Izatez, lege-hauste arina kontsideratzen da enplegu-zerbitzu publikoari ez ematea "jakinarazpen eta komunikazioen harrera bermatzeko behar den informazioa". Printzipioz, arau-hauste horren zigorra da prestazioa hilabete batez galtzea.

- Langabezia-prestazioen pertsona onuradunek egiaztatuko dute enplegu-zerbitzu publikoaren aurrean, hala eskatzen zaienean, "zer egin duten enplegua aktiboki bilatzeko, berriz laneratzeko edo beren enplegagarritasuna hobetzeko. Egiaztapen hori erakunde horiek ezartzen duten moduan egingo da, elkarren arteko lankidetzaren esparruan. Eskatutakoa ez egiaztatzea jarduteko konpromisoaren hausturatzat hartuko da".

- Erakunde kudeatzaileak "langabezia-prestazioen ordainketa eten ahal izango du, baldin eta iruzur zantzu nahikorik antzematen bada iruzurraren aurkako borrokan aginpidea duten erakundeek egindako ikerketetan".

- Prestazioa aldi batez etenda izan ondoren, zigortutako onuradunak erakunde kudeatzailean agertu beharko du berriz erregistratzeko. Hau da, kobrantza ez da hasten berriro automatikoki.

2. FOGASA-ren bermeen murrizketa

FOGASA enpresen eta langileen kotizazioez finantzaturako erakunde publiko bat da, soldata-zorreatik eta kaleratzeen kalte-ordainengatik erantzuten duena enpresaren kaudimen-gabezia edo egoera konkurtsala deklaritzen denean.

Erreformatik nabarmenki murrizten du langileen bermea, zor zaien dirua kobratzeari dagokionez, bai soldata-zorren kasuan eta bai kalte-ordainen kasuan, egoera konkurtsalean dagoen edo kaudimengabe deklaratu den enpresaren aurrean:

- **Soldata-zorreatzat:** FOGASAk gehien ordain dezakeen zenbatekoa Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (S.M.I.) bikoitza da, aparteko pagak barne sartuta; 2012 urtean, zenbateko hori izango litzateke 49,88 euro/egun (orain arte, S.M.I.aren hirukoitza zen, hots, 74,83 euro/egun), eta gehieneko muga 120 eguneko soldata (lehen, 150 egun ziren).
- **Kaleratzearen kalte-ordainek eragindako zorreatzat:** eguneko soldataren gehieneko zenbatekoa murrizten da, kalte-ordainaren kalkulurako: aurrerantzean, S.M.I.aren bikoitza izango da (lehen, hirukoitza zen).

3. Sektore publikoko langileen negoziazio kolektiborako eskubidearen eta lan baldintzen eraso

Gobernuen politika neoliberalak sektore publikoa jarri dute, aspalditik, sektoreko langileen lan-eskubideak murrizteko politiken jomugan, zerbitzu publikoak pribatizatzeko eta desegiteko estrategia baten baitan. Orain ezartzen diren neurriek beste batzuk izan dituzte aurretik, eta, halaber, soldaten izozketak, lanaldiaren luzapena eta lan-kargen igoera, lanpostuen amortizazioak..., eta, azken lan erreformaren ostean, EEKak administrazioak aplikatzeko aukera, pertsonal laborala kaleratzeko eta, horren bidez, enplegu publikoa suntsitzeko. "Dekretazo" berri honen bidez inposatutako neurriak ikusita, agerian geratzen ez direla azkenak izango "aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko".

3.1. Sektore publikoko negoziazio kolektiborako eskubidearen aurkako eraso

Madrildik ezarritako neurriak blindatu nahi dituzte, eskumen-eremu autonomikoa inbadituz eta indarrrik gabe utziz, baina baita negoziazio kolektiboaren eremua ere. Helburua da bai eremu politikoa eta bai sindikala tresnarik gabe uztea, bestelako neurririk ezin dezaten erabaki –hau da, Estatuak ezarritakoak ez direnak-. Izan ere, Estatuak ezarritako neurriei erabateko lehentasuna ematen zaie beren aplikazioan.

Errege lege-dekretu honetan, sektore publikoko negoziazio kolektiboa indarrrik gabe geratzen da, neurri hauen eraginez:

- Espresuki adierazten da neurri hauek indarrean sartzen direnetik "bertan behera eta eraginik gabe geratzen direla Administrazio publikoek eta haien mende edo haiei lotuta dauden Erakundeek pertsonal funtzionario eta laboralarentzat izenpetuta dituzten Akordioak, Itunak eta Hitzarmenak", baldin eta araudi honetan xedatutakoari kontrajartzen bazaizkio. Gainera, negoziazio kolektiboaren aurkako erasoaren eskutik, Estatuaren Administrazioak indarrrik gabe uzten ditu beraren parte-hartzerik –enplegatzaile bezala- ez duten akordioak eta hitzarmenak.

- Etorkezinerako erreserbatzen da pertsonal laboralaren hitzarmen kolektiboen eta akordioen aplikazioa bertan behera uzten jarraitzeko eskumena. Horri begira, dekretuak dioenez, "bermatzen da pertsonal laboralarekin zerikusia duten hitzarmen kolektiboak eta akordioak beteko direla, salbu eta, zirkunstantzia ekonomikoak nabarmenki aldatzetik eratortzen den interes publikoko kausa larri baten eraginez, Administrazio Publikoen gobernu-organismoek indarrrik gabe utzi edo aldatzen badute jadanik sinatuta dauden hitzarmen kolektibo edo akordioen betearazpena, interes publikoa zaintzeko beharrezkoa den neurrian soilik. Horri dagokionez, Administrazio Publikoek erakunde sindikalak informatu beharko dituzte akordioak etetera edo aldatzera eramanez arrazoiak".

Kontsideratuko da kausak horiek existitzen direla "Administrazio Publikoek kontu publikoak berriz orekatzeko edo izaera ekonomiko-finantzarioko neurriak edo doikuntza-planak ezarri behar dituztenean, aurrekontuen egonkortasuna segurtatzeko edo defizit publikoa zuzentzeko."

Jadanik sinatuta dauden lan hitzarmen, akordio eta itunetan hitzartutakoa beren kabuz -modu unilateralean- indargabetezko administrazioentzat etorkizunerako erreserbatzen den eskumen horrek babes eta segurtasun juridikorik

gabe uzten ditu sektoreko langileak, zeren ikusten baitute esku-hartze sindikalaren oinarriko tresna bat, negoziazio kolektiboa, baliorik gabe geratzen dela. Izan ere, erabaki horren oinarrian dauden kausen formulazioa –zentzu zabalean– eta interpretazioa administrazioen eskuetan soilik uzten dira, zeren alderdi sindikalari informatua izateko eskumena baino ez baitaio uzten.

3.2. Lan baldintzen aurkako eraso

- **Kalte-ordaina ematen duten pentsioak, konpentsazio-prestazioak eta** sektore publikoko edozein postu uztegiatik aurreikusita dagoen **beste edozein sari ekonomiko bateraezinak dira** beste edozein ordainsari publiko edo pribaturekin, eta baita erretiro-prestazioarekin ere.

Horrelako ordainsariak kobratzen ari direnek 15 asteguneko epea dute zer aukeratzeko duten jakinarazteko.

Aukeratu ezean, kontsideratuko da langileak uko egiten diola kobratzen ari zen kalte-ordain pentsioari, konpentsazio-pentsioari edo ordainsariari, eta une honetan gauzatzen ari den jardueraren ordainsaria aukeratzeko duela, edo, horren ezean, erretiro-prestazioa.

Erretiro-primak desagertzen dira behin betiko.

Aginpidea ematen zaio Gobernuari atal horren aplikazioa Botere Judizialaren Lege Organikoaren aldaketak xedatzen duenaren arabera egokitzeke.

- **2012ko abenduko aparteko paga kentzea:**

Kendutako zenbateko horiek erretiroaren kontingentziaren babesa barne hartzen duten pentsio-plan edo aseguru-kontratu kolektiboetara bideratuko dira etorkizunean (orain, aukera hori ezabatuta dago).

Osagarrien kenketa hainbanatu egin daiteke.

Aparteko pagarik ez dutenen kasuan, beren ordainsarien hamalauena kenduko zaie.

Paga ez zaie kentzen lanbide arteko gutxieneko soldataren 1,5era, urtean eta lanaldia osoan, iristen ez diren langileei –errendimendurako pizgarriak kontatu gabe-. Hau da, urtean 13.469,40 € baino gutxiago irabazten dutenei, hots, 962,10 € hilean (aparteko pagak alde batera utzita) edo 1.122,45 € hilean, paga hainbanatuta edo aparteko paga kobratzeko eskubiderik gabe, horrelako kasurik egonez gero.

Kotizazioaren oinarria 2010eko abenduarena izango da (2010eko maiatzaren berdina zen, hots, soldata % 5 murriztu aurretik, aldizkako izaera duten ordainsari-kontzeptuak edo hilabetetik gorako aldizkakotasuna dutenak kanpo utzita).

- **Baimenak:**

Gai partikularrengatik ematen den baimena 6 egunetik 3 egunera murrizten da.

Ezkontzagatik ematen den baimena barne sartzen da (ez du ezer esaten izateko bikoteei buruz): 15 egun.

Seigarren hirurtekoa eta hurrengoak betetzean **erasten ziren bi egun libreak** kentzen dira. Lehen, seigarren hirurtekoa betetzean, beste bi egun libre ematen ziren urtean, eta horiei beste bat gehitzen zitzairen zortzigarretatik aurrera betetzen zen hirurteko bakoitzeko. Aurrerantzean, aukera hori ezabatuta geratzen da.

Orobat, indarrrik gabe geratzen dira Estatuaren Funtzionario Zibilen legeak ezarritako egun erantsiak, 15, 20, 25 eta 30 urtez zerbitzuan egoteagatik ematen zirenak, baldin eta horrelako kasuren bat geratzen bada oraindik ere.

- Oporrak:

Lehen, gutxienez 22 astegun ziren. Beraz, akordio eta itunen bidez, egun kopuru hori handitu egin zitekeen.

Orain, berriz, dekretuak ezartzen du oporrak 22 egun direla, eta indarrrik gabe uzten ditu aurrekoa gainditzen duten itun, akordio eta hitzarmen guztiak, baimenei, oporrei eta norberak hartzeko egun libreei dagokienez.

Aldaketa horiek **2013tik aurrera** aplikatuko dira baimen eta oporrentzat.

- Bajaren osagarriak:

Herri Administrazioek aldi baterako ezintasunaren prestazioa (IT) osatu ahal izango dute. Horri begira, 3 hilabeteko epean, Administrazio bakoitzak garatuko ditu ezarri beharreko osagarriak.

Baremo bat ezartzen da, Eusko Jaurlaritzak bere plantillarentzat onartu zuenaren antzekoa dena, alegia: lehenengo hiru egun naturaletan, osagarria ordainduko da ordainsarien % 50era iritsi arte; laugarren egun naturaletik hogeigarrenera arte, ordainsarien % 75eraino iritsiko da osagarria, eta 21. egunetik 90. egunera arte % 100eraino osatuko da ordainsaria.

Aldi baterako ezintasuna lanbide-gertakizunetatik ondorioztatzen denean, % 100eraino osatuko da ordainsaria lehendabiziko egunetik.

Administrazio bakoitzak erabakiko du zein kasutan osatu daitekeen ordainsaria % 100eraino; kasu horiek salbuespenak izango dira eta behar den bezala justifikatu beharko dira.

Ospitalizazioak eta interbentzio kirurgikoak justifikazio egokia duten kasutzat hartuko dira.

MUFACEko pertsonalarentzat gauza bera, baina 91. egunetik aurrera beren araudian ezarritako sorospena aplikatuko zaie. Gertakizun arruntek eragindako aldi baterako ezintasun egoeran ez dute inoiz ere kobratuko Gizarte Segurantzaren erregimenean daudenean kobratzen dutena baino gutxiago, dagozkien osagarriak barne sartuta.

Atal honetan xedatutakoari kontrajartzen zaizkion akordioak, itunak eta hitzarmenak indarrrik gabe geratzen dira.

Errege Lege Dekretu honen bidez, Estatuaren Administrazioak lehen adierazitako osagarriak ezartzen ditu hiru hilabetetik aurrera hasten diren bajentzat (2012ko urriaren 15etik aurrera).

Errege Lege Dekretu hau indarrean sartu ondoren hasten diren bajei aplikatzen zaie.

Indarrrik gabe uzten da, espresuki, funtzionario zibilen eta Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrekoen artean aldi baterako ezintasunaren lehenengo hiru hilabeteetan zegoen baldintza-berdintasuna, alegia, % 100 kobratzea bajaren lehenengo hiru hilabeteetan.

Indarrrik gabe uzten da, halaber, seigarren hilabetetik aurrera justiziako pertsonala-

rentzat ezartzen zen osagarria; nolahi ere, 181. egunetik aurrea, Justiziako Administrazioaren pertsonalaren Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean ageri den sorospena aplikatuko zaie.

- Kreditu eta baimen sindikalen murrizketa:

2012ko urriaren 1etik aurrera, ordu-kredituarekin, ordezkari sindikalen izendapenarekin, liberazioekin eta gainerako eskubide sindikalekin zerikusia duten eskubide sindikalak bat etorriko dira Askatasun Sindikalaren Legean, Langileen Estatutuan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritakoarekin.

Salbuespena: negoziazio-mahaietan aurrerantzean sinatzen diren akordioak, gai honi buruzkoak: ordezkari sindikalen lan-absentziak –beren zereginak betetzeak eraginda- edo horren erregimena ukitzen dituzten aldaketak.

Aurrekoa gainditzen duten itun, akordio eta hitzarmen guztiak indarrik gabe geratzen dira.

- Funtzionario-erregimena duten eta Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartuta dauden pertsonen nahitaezko erretiroa:

Aurrerantzean, beren nahitaezko erretiroaren adina Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak ezartzen duena izango da, adinari lotutako koefizientze murriztailerik gabe; adin hori 67 urtera arte luzatu da arian-arian, kotizatutako urte kopuruaren arabera.

Horren ondorioa da desagertu egiten dela 70 urte bete arte jardunean jarraitzeko aukera, baldin eta adin horretara iritsi aurretik langilea, bere egoeratik, adinari lotutako koefiziente murriztailerik gabe geratzen bada.

Funtzionarioen erretiro partziala indarrik gabe uzten da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan; dena dela, uste dugu ezin izango dela indargabetu Errege Lege Dekretu hau Lege bezala baliozkotzen den arte.

-Ordezkaritza-organoen erregistroa:

Herri Administrazioen, beraren erakunde, agentzia eta unibertsitateen eta beraren mendeko entitateen ordezkari-organoen erregistro bat sortuko da, izaera pertsonaleko datuak babesteko araudiaren mende. Bertan erregistratuko dira, gutxienez, alderdi hauekin zerikusia duten jarduerak: ordezkari-organoen sorrera, aldaketa edo deuseztapena, sail sindikalak, haien kideak, ordu-kredituak, lagapenak eta liberazio sindikalak, baldin eta eragina badute lanera etortzeko betebeharrak edo erregimenean.

Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioan beste erregistro bat eratzen da, alegia, Estatuaren Administrazio Orokorrentzat, beraren erakunde, agentzia eta unibertsitateentzat eta beraren mendeko erakundeentzat lan egiten duen pertsonalaren ordezkari-organoen erregistroa.

Aginpidea duten erakunde administratiboek hiru eguneko epean jakinaraziko dizkiote erregistroari gai horien inguruan hartutako erabakiak.

Hartutako erabakiek ez dute eraginik izango erregistratzen diren arte, langileen ordezkariak eta ordezkari sindikalak salbuespentzat hartuta; izan ere, kasu horietan aplikatuko dira Askatasun Sindikalaren Lege Organikoa, Langileen Estatutua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua eta aplikatuzkoak diren gainerako arauak.

Erregistroaz arduratzen den organoak uko egin ahal izango dio erabaki bat erregistratzeari edo jasotzeari, zuzenbidearen aurkako dela iritziz gero.

- Baliabideen asignazio eraginkorra eta ebaluazioa Estatuaren Administrazioan: Estatuaren Administrazioaren esparruan, "giza baliabideen optimizazioa bermatzeko neurriak eta ekintzak abiatuko dira, eta langileen jarduna ebaluatzeko sistemak ere bai".

- Azpikontratutako zerbitzu-enpresen langileak:

Sektore publikoa osatzen duten Herri Administrazioek (% 50etik gorako partaidetza duten merkataritza-sozietateak barne sartuta) jarraibideak ezarriko dituzte, 2012ko abenduaren 31 baino lehen, Administrazioaren kudeatzaileen eta kontratatutako enpresaren pertsonalaren artean dagoen harremana argitzeko, lan-harremana sor lezaketen ekintzak saihesteko xedez (legez kanpoko lagapena).

Kontratutako enpresen langileak Administrazioaren pertsonala izatera pasatzen badira, epai judizial batek hala agintzen duelako, Administrazioaren pertsonal laboralari aplikatzen zaion Hitzarmen Kolektiboan ezarritako soldata jasoko dute, aurrekontu-legeak betearazteko aginpidea duten organoek horren aldeko txostena eman ondoren.

- Pertsonalaren alorreko informazioa bidaltzea:

Autonomia Erkidegoetako Administrazioek eta Tokiko Administrazioak pertsonalaren alorreko gastuei buruzko informazioa bidali beharko diote Madrilgo Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioari, alderdi hauek aipatuz: mendetasun-organok, ordainsariak, pertsonal motak, giza baliabideak edo plantillak, eta abar.

4. Fiskalitate erregresiboa: BEZ-aren igoera

Kalkulatzen den inpaktu ekonomikoaren ikuspuntutik, PPko gobernua iragan uztailaren 13an onartu zituen doikuntzen atal mardulena zergen bidezko diru-sarreraren igoera da, BEZaren igoeraren bitartez, 2012ko irailaren 1etik aurrera.

Alde horretatik, garrantzitsua da kontuan hartzea BEZa faktura jaulkitzeko unean aplikatzen dela, kontsumoa noiz egin den kontuan hartu gabe.

Kontsumoaren gaineko zerga-igoera honen aldaketa esanguratsuenak hauexek dira:

BEZ-AREN TASEN ALDAKETA.

Karga orokorraren tasa –BEZ arrunta- % 18tik % 21era igotzen da.

Tasa murriztua % 8tik % 10era pasatzen da.

Tasa supermurriztua % 4an mantentzen da.

ONDASUN ETA ZERBITZUEN SAILKAPENAREN ALDAKETA.

Tasak igotzeaz gain, orain arte % 8ko tasa murriztuaz kargatzen ziren ondasun eta zerbitzu batzuk % 21 tasa arrunt berriaz kargatuko dira aurrerantzean. Birsailkapen berriaren eraginez gainkargu fiskal hori jasango duten ondasun eta zerbitzuak honako hauek dira:

Ostalaritzako zerbitzu mistoak (ikusizunak eskaintzen dituzten jatetxeak, diskotekak,...).

Ile-apainketako zerbitzuak (autonomoek kudeatzen dituzten establezimenduak izan ezik).

Antzoki, zirku eta gainerako ikuskizunen sarrerak.

Telebista digitaleko zerbitzuak eta irrati-zerbitzuak.

Artistek (pertsone fisikoek) betetzen dituzten zerbitzuak.

Artelanen erosketak.

Hileta-zerbitzuak eta loreak eta apainketa-landareak.

Bada hainbeste nabarmendu ez den beste gertaera bat, alegia, orain arte tasa supermurriztua aplikatzen zitzaien eskola-material batzuk % 21eko tiporruntera pasatuko direla aurrerantzean. Egia da, nonbait, badagoela nolabaiteko nahas-mendua "eskola-material" delako kontzeptu lauso horretan sartzen diren produktuen inguruan, baina Zergen Zuzendaritza Nagusiak argitu du produktu hauei % 4ko BEZ tasa aplikatuko zaiela: testu-liburuak, kaligrafia eta opor koadernoak, albumak, partiturak, mapak eta marrazketa-koadernoak.

BESTE ALDAKETA BATZUK.

2012 urtearen amaieran, bertan behera geratuko da higiezinaren sektorea bultzatu nahi zuen aldi baterako neurria, alegia, etxebizitzaren erosketa eta etxebizitzaren errentamendua -erosteko aukerarekin- % 4ko tasa supermurriztuaz kargatzen zuen neurria. Era horretan, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, etxebizitzari¹ tasa murriztua kargatuko zaio berriro, baina orainoan % 10 aplikatuta.

Orobat, etxebizitzak zaharberritzeko eta konpontzeko lanei tasa murriztu berria aplikatuko zaie 2013ko amaierara arte, hau da, % 10. Orain arte, % 8 aplikatzen zitzaien, hots, lehengo tasa murriztua (aldi baterako neurri hau aurtengo abenduaren 31ra arte zegoen aurreikusita, printzipioz).

¹ Babes-ofizialeko etxebizitzak izan ezik, horiei mantenduko baitzaie %4ko tasa supermurriztua

NEURRI ERREGRESIBO ETA BIDEGABE BAT, DIRU-SARRERA GUTXIEN DITUZTEN PERTSONEI KALTE EGITEN DIENA BEREZIKI.

Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoek eskumen arautzaile zabalak aitortzen dizkiete Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroari, zuzeneko zergen alorrean; aldi berean, baina, muga zorrotzak ezartzen dizkiote haien zergapetze-ahalmenari, eta BEZa (eta gainerako zeharkako zerga garrantzitsu guztiak) foru lurraldeen ahalmen arautzailetik kanpo uzten dute.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga zerga nagusietako bat da, dirua biltzeko duen ahalmen handiagatik, hainbestearino non, PSOEren lehengo gobernua 2010ean BEZarentzat onartu zuen igoeraren ostean², zerga horren bidez bildutako dirua zerga hitzartuen bidez guztira biltzen den diruaren % 38tik gora egotera iritsi baita.

BEZaren igoerak ekarriko dituen ondorioen artean, azpimarratu behar da karga fiskalaren igoera modu erregresibo eta bidegabean banatuko dela; izan ere, kalte handiagoa egingo die herritar xeheei, eta kalte hori handiagoa izango da haien diru-sarreraren maila txikiagoa den neurrian. Beraz, ondorio negatiboa izango du errentaren birbanaketan, eta desberdintasun sozialak areagotuko ditu.

Horren arrazoia BEZaren ezaugarriak berak dira, zeren zeharkako zerga bat baita, kontsumoa kargatzen duena eta pertsona guztiei berdinduz aplikatzen zaiena, haien ahalmen ekonomikoa kontuan hartu gabe.

Hilaren amaierara iristeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonak beren diru-sarrera gehienak edo guztiak bideratzen dituzte beren beharrak asetzeko ezinbestekoak diren ondasunak eta zerbitzuak erostera, eta, hortaz, BEZagatik jasaten duten esfortzu fiskala handiagoa da, erlatiboki (beren errentaren proportzioan), baliabide eta errenta maila handiagoak dituzten familiena baino.

Beste alde batetik, prezioen igoera orokorra izango da, nahiz eta beraren neurria kasu bakoitzean aplikatzen den BEZ igoeraren arabera izango den, eta enpresek zerga-igoera horiek azkeneko prezioan islatzeko duten ahalmenaren arabera ere bai. Errealitatean, baina, erosteko ahalmena kenduko dio, modu esanguratsuan, biztanleria osoari.

Gainera, erosteko ahalmena zeharkako zergen bitartez galtzeaz gain, badira langile-klasea pobretzen ari diren beste faktore batzuk, hala nola, enpleguaren suntsipena, soldatak murrizteko politikak eta zerbitzu publikoen eta prestazio sozialen murrizketak. Horrenbestez, aurreikustekoa da BEZaren igoerak kontsumo pribatua jaitsaraziko duela berriro, eta, hortaz, atzeraldi ekonomikoa are gehiago larriagotuko dela.

Testuinguru konplexu honetan, itxaron behar da jakiteko zer-nolako eboluzioa izango duen BEZaren bidezko diru-bilketak, aurtun nabarmenki jaitsi baita, orain arteko hila-beteetan; ikusi behar da, halaber, zer-nolako eragina izango duen beste zerga batzuen diru-bilketan, baldin eta atzeraldia are gehiago sakontzen bada azkenean.

Ziur esan daitekeena da BEZaren igoerak ondorio negatibo larriak izango dituela:

- Herritarren eroste-ahalmenean, batez ere langile-klaseari eta herri sektoreei dagokienez.
- Zerga-sistemaren progresibotasunean eta errentaren birbanaketan.
- Egoera ekonomikoa ahulduan eta beraren balizko susperraldian.

² 2010eko uztailean, tasa orokorra %16tik %18ra pasatu zen, eta murriztua %7tik %8ra

5. Mendetasun egoeran dauden pertsonen eskubi- deen murrizketa

PP-KO GOBERNUAREN JUSTIFIKAZIOA MENDEBASUNAREN LEGEA ALDATZEKO.

- Sistemaren iraunkortasuna arriskuan dago, eta horrek ondorio kaltegarriak ditu mendetasunarekin zerikusia duten zerbitzuen sektore produktiboan enpleguarentzat eta haien bideragarritasunarentzat. (*Azken hilabeteotan, presioak egon dira egoitza pribatuaren patronalaren aldetik: 100.000 plaza libre daude Estatuan, eta egindako inbertsioak ez dira errentagarriak*).

- Tratamendu berri bat ematea zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantzako sistemari, eta Etxeko Laguntza Zerbitzua (SAD) kasu jakin batzuetan soilik eskaintzea, alegia, etxeko beharrak eta arreta pertsonala modu bateratuan aitortzen direnean. (*Prestazioen murrizketa*).

- Graduen egitura berria, kudeaketa sinplifikatzeko, eta lehentasuna ematea arretaren zain dauden eta mendetasun gradu handiagoa duten pertsonen. (*pertsona onuradunak Sistemara sartu behar ote diren kontrolatzeko forma berri bat, hots, sarbidea gobernuaren nahiaren arabera kontrolatzeko forma berri bat*).

- Gutxieneko eduki komuna erregulatzeko, intentsitate eta bateragarritasun aldetik, erkidegoen arteko desberdintasuna gainditzeko. (*Autonomia Erkidegoek Legez gaitzen duten aplikazioa beherantz berdintzea*).

- Aurrezpen-neurri ekonomikoak: prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak murriztea, familiaren baitan ematen den zaintzarentzat, eta Sistemaren finantziarioaren gutxieneko mailaren zenbatekoak murriztea. (*"Aurreztutako" dirua ez da bideratzen sistema hobetzerako*).

- Gizarte zerbitzua eta mendetasunaren arretarako zerbitzuak Lurralde Kontseilu berean batzea. (*Kontrol-eremua zabaltea, gizarte zerbitzuen kontrol-eremuaren gainetik hedatuz*)

NEURRIEN AZTERKETA.

Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua eta Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema (8. art.)

- Kontseilu berean bateratzen dituzte gizarte zerbitzuak eta mendetasunarentzako arreta. Gaur egun, Mendetasunarentzako Arretari Gizarte Zerbitzuen Legeetatik heltzen zaio, Aldundietan eta Nafarroako Gobernuan. Gai hori, baina, ez dago guztiz integratuta Estatuako Autonomia Erkidego guztietan.

- Orain arte, Gizarte Zerbitzuak Autonomia Erkidego bakoitzaren eskumenak izan dira. Kontuan hartzen badugu zer helburu bilatzen den, alegia, ahalik eta koherentzia handiena lortzea politika sozialen aplikazioan, Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen aldetik, orduan eduki zentralizatuak eta uniformizatuak barne hartuko lituzke bai mendetasuna (orain gertatzen den beza-

la) eta bai gizarte zerbitzuen multzoa (haurrak eta gazteria, bazterketa soziala, genero-indarkeria, immigrazioa...). Euskal Herriko instituzioei dagokienez, beste tresna bat da alor horretan dagoen esku-hartze propiorako ahalmena kontrolatzeko eta baldintzatzeko, gutxieneko zerbitzu-kartera komunak ezartzearen bitartez.

Gutxieneko babes maila bermatuaren asignazioa (9. art.)

- Badira hiru babes maila, eta, hortaz, hiru finantziario maila: estatuak ezarritako gutxieneko maila, Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen artean adostutakoa, eta Autonomia Erkidego bakoitzak ezarri behar duen maila erantsia.

- Gutxieneko mailan, Estatuak pertsona onuradunen arabera finantzatzen du. Orain, berriz, aldaketa bat egin da, mendetasun gradua eta prestazio mota sartuz.

- Printzipioz, prestazioa zerbitzuen formaz kontuan hartzen duen finantziarioa onuragariagoa da gure herriko errealtatearentzat prestazio ekonomikoena baino, zeren gure herrian garatuago baitaude zerbitzuak. Hala eta guztiz ere, kalkulua egiteko forma berri bat onartzeaz batera, murrizketa ekonomiko bat ere onartu da Estatuaren ekarpenean, eta, ondorioz, efektu positiboa ezabatuta geratzen da. 2012ko Aurrekontu Orokorretan onartutako mailatik murriztutako 283 milioiei beste 200 milioiko murrizketa gehitu behar zaie, hots, Errege Dekretu berri honek gutxieneko maila bermatutik kendu dituen 200 milioiak. Horren eraginez, Aldundiek eta Nafarroako Gobernuak 42 milioi euro gutxiago eskuratuko dituzte Estatuaren aldetik.

Asistentzia pertsonalarentzako prestazio ekonomikoa (19. art.)

- Prestazio honen asmoa da hezkuntza jasotzen eta lanera iristen laguntzea mendetasun handiko pertsonen. Prestazio hau ia Gipuzkoan soilik garatu da: 748 prestazio, Estatuan guztira dauden 845 prestazioetatik.

- Aldaketak edozein mendetasun gradutan dauden pertsona guztientzat zabaltzen du prestazioa. Ikuspuntu formaletik, aurrerapen bat da. Errealtatean, baina, dibertsitate funtzionalaren mugimenduaren aldarrikapen hori gutxietsita geratu da (Gipuzkoan izan ezik).

Etxeko Laguntza Zerbitzua (23. art.)

- Zerbitzu honek arreta pertsonalarekin zerikusia zuten beharrak betetzen zituen (higiene pertsonala, altxatzea, janzea, ...), eta baita etxeko zereginekin zerikusia dutenak ere (etxea eta arropa garbitzea, janaria prestatzea, ...). Aldaketaren ondorioa da etxeko arreta bakarrik eskainiko dela arreta pertsonalarekin batera.

- Neurri hau Etxeko Laguntza Zerbitzua (SAD) ahultzeko prozesuaren baitan ulertu behar da. Ez dugu ahaztu behar zein zen Aurrekontu Orokorren helburuetako bat, alegia, Zerbitzu horren onuradunen kopurua erdira jaitea. Potentzial handiko baliabide bat da, pertsonen beren etxean geratzen laguntzeko eta izaera prebentiboko esku-hartze goiztiar bat garatzeko, mendetasun prozesuak motelduz. Beraren intentsitatea handitu beharrean, arreta txarragoa eskaintzen da eta larritasun handiagoko mendetasun egoerentzat mugatzen da; horren eraginez, murriztu egingo da pertsona onuradunen kopurua.

Prestazioen bateraezintasuna (berria)

- Bateraezintasun sistema bat ezartzen du zerbitzuen artean, eta etxean geratzea errazten duten prestazioak bateratzeko aukera soilik eskaintzen du, baldintza bat betetz gero, alegia, prestazio horien batuketak ez gaintzea, guztira, pertsonaren

mendetasun graduari aitortzen zaizkion gehieneko intentsitateak.

- Neurri horrek murrizten du zenbait prestazioren erabilera konbinatzeko aukera, hots, prestazioak modu malguan eta egoera pertsonalari egokিতa konbinatzeko aukera. Hala, adibidez, eguneko zentrora joaten diren pertsonak ez dute izango Etxeko Laguntza Zerbitzuaren asistentzia ohetik altxatzeko eta garbitzeko. Neurri hau Nafarroan aplikatzen ari da jadanik.

Mendetasun graduak (26. art.)

- Orain arte, hiru gradu bereizten ziren (mendetasun handia, larria eta moderatua), eta gradu bakoitzaren baitan bi maila. Aurrerantzean, graduak soilik kontsideratuko dira.

- Sinplifikazio horren ondorioak bi motatakoak dira. Alde batetik, balorapenak aurreiritzi negatiboz egingo dira, eta, hortaz, zalantzazko kasuetan, gradu txikiagorantz joko du aitortzak (aurrezpen handiagoa sistemarentzat). Beste alde batetik, sailkapen berriaren eraginez, gradua berraztertzeke egiten diren eskariak emaitza berbera izan dezakete: beherantz jotzea, eta, hortaz, lehendik eskuratutako eskubideak galtzea.

Balorapena eta mendetasun egoera (27. art.)

- Lurralde Kontseiluan erabakitzen diren balorapen-prozedurak erabiltzera behartzen du, hau da, ez du baimentzen bestelako balorapen-prozedurarik erabiltzea.

- Ez du onartzen Aldundiek eta Nafarroako Gobernuak erabaki soberanoetan oinarritutako baremorik erabiltzea. Baremoaren gai hau oso garrantzitsua da balizko pertsona onuradunak kontrolatzeko duen ahalmenagatik. Une honetan, baremo berri bat prestatzen ari da. Bigarrena sartu zenean indarrean, horren ondorioa izan zen milaka pertsona desagertu zirela sistematik.

Banakako Arretarako Programa (29. art.)

- Legeak alternatiba batzuen artean hautatzeko aukera jasotzen zuen, pertsona onuradunaren egoera aitortu ondoren. Oraingo testuak salbuespen bat ezartzen du: familia-inguruneko zaintzagaratik ematen diren prestazio ekonomikoei dagokiena, hori Administrazioak proposatu behar baitu. Gogoratu behar da EAeko onuradunen % 49k eta Nafarroako onuradunen % 57,7ek prestazio hori jasotzen dutela.

- **Aldi berean, neurri hauek eransten dira prestazio horien aurka:**

Haien zenbatekoa % 15 murrizten da.

Bi urteko epea ezartzen da, atzeraeraginik gabe, eskariaren eta prestazioa betetzearen artean.

Kotizazioen eredia aldatzea, halako moldez non pertsona zainzaileen kotizazioaren % 100 ordaindu beharko den erregimen berezian. Gaur egun, administrazioa da horretaz arduratzen dena.

- *Neurri horrek 28.857 onuradun ukituko lituzke Euskal Herrian (5.976 Nafarroan eta 22.881 EAEn).*

- Zerbitzu-sistema indartsu bat sustatzeko ideiatik oso urrunduta, PPren

asmoa kontrako noranzkoan doa. Neurri horren bidez, PPK bateragarri egin nahi ditu arretaren murrizketa (mendetasun handiko pertsonengana zuzenduta, gehienbat) eta egoitza pribatuen patronalaren interesak, libre dituzten plazak bete nahi baitituzte. Horretarako, Gobernuak egin duena da familia-inguruneke prestazio ekonomikoak zigortzea, haien zenbatekoa jaitsiz (% 15), pertsoneri aukeratzeko ahalmena ukatuz, eta senide zaintzaileen kotizazio eredia berraztertuz; hala, azken kasu horretan, pertsona horiek % 100 hartu beharko dute beren gain, kotizazio horiek mantendu nahi badituzte.

- Gure jarrera zerbitzu-sistema indartzea izan da, eta horregatik salatu dugu familia-prestazioez egin den erabilera (beste kontu batzuen artean, genero-diskriminazioari eutsi dio, eta baita emakumeen rolari ere, zaintzen ardura eskusiboa haien gainean jarritz). PPren erabakiak, ez dagoenez inolako bultzadarik zerbitzu berriak sortzeko, prestazio ekonomikoek ezarritako zigorrarekin eta berrordainketaren igoerarekin batera, ondorio bakarra izango du: zaintzaren karga handitzea emakumeentzat (karga fisiko eta ekonomikoa), baina baldintza txarragoetan. Aurreko hamarkadetara itzultzea da. Egoitzetara joango direnak egoera horri ekonomikoki aurre egiteko gaitasuna dutenak izango dira, ez beste inor. Gainerakoak etxean moldatu beharko dira, ahal duten moduan.

Legearen aplikazio progresiboa (amaierako lehen xedapena)

- Mendetasun moderatua duten pertsonak 2015 urtean sartuko dira Sisteman, hau da, haien integrazioa urte horretara arte atzeratzen da.

- Neurri honek badu eragina Aldundietan eta Nafarroako Gobernuan, zeren 2012ko urtarriaren 1etik jarraitu baitute pertsona horiek sisteman sartzen. Gastu hori ez du bere gain hartzen Madrilgo Gobernuak. Pertsona horiek ez integratzearen ondorioa da esku-hartze goiztiarreko politikak baztertzen direla, mendetasuna agertzen hasten den fasean.

Balorapen orokorra.

- Legearen garapenak agerian utzi ditu bere garaian salatu genituen ahuleziak: mendeko pertsonen eta haien senideen eskubideen arteko nahasketa, legearen izaera estatal eta inposatzailea, mendetasunaren merkantilizazioa, eredu integralaren falta, finantziazio ahula,...

- Espainiar Gobernuak 2010az geroztik egin dituzten aldaketek, neurri berriekin batera, ia ezerezean utzi dute legearen edukia. Mendeko pertsonen eskubideak defendatu eta bermatu beharrean, pertsona horiek kanporatzen ari dira sistematik. Une honetan, helburu bakarra mantentzen da: GERO ETA MENDEKO PERTSONA GUTXIAGORI PRESTAZIO GUTXIAGO ESKAINTZEA, ETA BALDINTZA TXARRAGOETAN. Eta bi alternatiba eskaintzen ditu soilik: bata, ordaindu beharreko zerbitzu pribatuak; bestea, emakumeei karga handiagoa ezartzea familia-ingurunean.

- Aldundien eta Nafarroako Gobernuaren politika gidatzen dituen legea eskubideak ezabatzen ari da, beren jarduteko ahalmen propioa baldintzatu eta ekonomikoki zigortzen du, mendetasunaren alorrean, eta presionatzen du Euskal Herriko mendeko pertsonen eskubideak eta prestazioak beherantz berdintzeko Estatuaren alorrekoekin; eta, gainera, mendetasunarentzako arreta baliabide propioez antolatzeko aukera ukatzen du.

- Estatuako legediak bultzatzen duena da eskubideak ez finkatzea, prestazioak ez bermatzea, kalitatezko zerbitzu eta enpleguak sortzearen aldeko apusturik ez egitea; halaber, gure antolaketa-ahalmena ukatzen du, zalantzak eta segurtasunik eza sortzen ditu etengabe, eta emakumeak behartzen ditu inposaketa patriarkala- zaintzaren ardura beren gain hartzera. Horren guztiaren aurrean, ezinbestekoa eta premiazkoa da legezko esparru propio bat exijitzea, hauxe ahalbidetzeko xedez:

- Mendeko pertsonen eskubideak aitortzea; eta zaintzaile ez izateko eskubidea aitortzea emakumeei.
- Bermatzailea izatea bere prestazioetan.
- Zerbitzu sozial publikoen hornidura hartzea oinarritzat.
- Finantziario finkoa izatea.
- Modu deszentralizatuan funtzionatzea, toki eta/edo eskualde mailan, ahalik eta erantzun gehien emateko hurbiltasunetik, modu koordinatuan (sailen eta instituzioen arteko koordinazioaz).
- Plantilla egokiak izatea kopuru aldetik, langileen zereginaren balioa aitortzen duten lan- eta soldata-baldintzekin, eta prestakuntza, birziklapen eta ezagutzaren eguneraketarako programekin.

6. Ordu-tegi komertzialen liberazioa

Errege Dekretu honetan ordutegiak liberalizatzen eta saltokiak igande eta jaiegunetan irekitzen zuzendutako neurriak sartu izanak agerian uzten du, berriz ere, zer interes ezkututzen den neurri horien atzean, alegia, merkataritza-zentro handiak eta multinazionalak saritzea, saltoki txikien kalterako, sektoreko langileen eskubideen aurka eta euskal gizarte osoaren aurka, gizarte eredu kontsumista bat ezarri, Euskal Herriko gehiengo sindikal eta sozialak salatu izan duen bezala.

Gainerako neurrietan bezala, geure eskumen-eremuaren inbasioa erabiltzen da, oinarritzko lege deritzan bitartez, Nafarroaren eta EAEn eremuan erabakitzea eragozten duten erabakiak ezartzeko.

Oraingoan, ordutegi komertzialei buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Legea aldatzen da, hots, Madrilen oinarritzko izaeraz onartutako legea, ordutegiak luzatuz eta igande eta jaiegunen kopurua handituz:

- Ordutegi eta irekiera askatasuna **300 metro karratutik** beherako azalera duten saltokientzat (**lehen, 150 metro karratu ziren**).

- **Beharpenen sasoiaren liberalizazioa; orain, merkatarik bakoitzak erabakiko du noiz eta zenbat denboraz egiten dituen beharpenak.**

- Autonomia Erkidegoek erabakiko dute **zer ordutegi globaletan** garatu ditzaketen saltokiek beren jardura asteko lanegunetan, baina ezin ezar dezakete **90 ordu** baino gutxiagoko ordutegi globalik (**orain arte, 72 ordu izan dira**). Gainera, autonomia erkidegoek erabakitzen badute ordutegiak ezartzeko eskumen hori ez erabiltzea, adierazitako mugarekin, "kontsideratuko da merkatariek osoko askatasuna dutela beren saltokiak irekitzeko orduak determinatzeko".

- Dekretu berriaren arabera, **saltokiak 16 igande eta jaiegunetan egon ahal izango dira zabalik publikoarentzat (lehen, 10)**. Ezartzen da, halaber, autonomia erkidegoek kopuru hori aldatu ahal izango dutela, beren behar komertzialei erantzuteko, baina baimendutako igande eta jaiegunen gutxieneko kopurua ezin izango da **10etik** behera mugatu (**lehen 8 ziren**).

- **Ordutegi eta irekieren osoko liberalizazioa eremu turistiko deritzanetan.** Dagokien udalen proposamenez, autonomia erkidegoek mugimendu turistiko handiko eremu bat deklaratu beharko dute, gutxienez, 200.000 biztanletik gorako udalerrietan. Errege Dekretuak horrelako hiri batzuen zerrenda bat egin du, eta Bilbo barnean sartzen da.

Modu iragankorrean, ezartzen da jadanik onartuta dauden igande eta jaiegunen egutegiak –saltokiak zabalik egoteko– indarrean jarraituko dutela 2012ko abenduaren 31ra arte. Halaber, autonomia erkidegoei agintzen die, neurri hauek indarrean sartzen direnetik aurrera, "prozedurak abiatu behar dituztela igande eta jaiegunen egutegiak egokitzeke, 2013tik aurrera noiz egin daitezkeen zabalik ezartzeko", legeak ezarritakoarekin bat etorritik.

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ere ordutegi komertzialak liberalizatzen neurrien bidea hartu dute, urtean 8 igande edo jaiegunetan irekitzea baimentzen duen arautegi bana onartuz (33/2005 Dekretua EAEn eta 143/2005 Foru Dekretua Nafarroan); nolahi ere, saltoki txikiak, sindikatuak eta gizarteak gauzatutako mobilizazio indartsuak lortu du neurri horiek mugatzea, eta horrela jarraitu beharko du iza-

ten. Horren arrazoiak hauexek dira:

- Oraingo ordutegi komertziala aski zabala da erosketak egin ahal izateko.
- Saltokiak irekitzen baimentzea merkataritza-zentro handientzat soilik da onuragarria; saltoki txiki eta ertainei, aldiz, kalte larria egiten die eta desagertzeko bidean jartzen ditu.
- Saltoki txikiak ixteak ehunaka lanposturen galera ekarriko luke.
- Ordutegi horiek familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko eskubidea urratzen die sektoreko langileei.
- Salmentak ez dira jaitsi ordutegi komertzialaren eraginez, baizik eta jendearen eroste-ahalmena jaitsi delako.
- Instituzioetatik ezarri nahi diguten hiri eta kontsumo ereduaren aurka gaudelako erabat.

7. Badago alternatibarik. Horregatik guztiagatik, irailaren 26an, Greba Orokorra

Egoera horren aurrean, langile-klaseari eta gizarte osoari kalera ateratzea dagokigu. Kaleak hartu behar ditugu, krisiaren EZ-irteera hori gaitzesteko eta aldaketa erradikal bat eskatzeko politika publikoetan.

Dena dela, euskal eremu politikoa da taxuzko neurriak hartzeko ardura duena, egotzari behar den bezala erantzuteko. Bada garaia bestelako bide batetik abiatzeko, bide berri batetik urratsak egiteko. Krisi honi irtenbide propioa ematea ahalbidetzen digun alternatiba erreala bat eraikitzeko Euskal Herriatik, gizarteari erabateko lehentasuna emanaz irtenbide propio horren helburuetan.

Badago alternatibarik, eta bideragarria da hiru erabaki hartzen badira:

- Espainiar Gobernuaren erreformak ez aplikatzea.
- Euskal instituzioen aurrekontu publikoetan ezarritako murrizketak baliogabetzea.
- Plan instituzional berri eta integral bat jartzea mahai gainean, krisitik irtetea ahalbidetzen diguten politikak egiteko. Lau zutaberen gainean definitutako plan bat:
 - Justizia fiskala.
 - Zerbitzu publikoen sistemaren garapena.
 - Euskal finantza-sistema publiko baten sorrera.
 - Enplegua sortzeko plan erreala bat, eta gutxieneko errentaren bermea, lana eta aberastasuna banatzeko politiken aldeko apustua eginez.

Hori lor daitekeen alternatiba erreala bat da. Eta mendetasun huts eta gordinaren alternatiba da. Horixe baita bestelako aukera. Erabaki behar da zer nahi dugun: krisitik ez irtetea erabaki duen Estatu baten mende jartzea eta hor uniformizatzea, edo irtenbide propio bat emateko aukerari heldzea, politikak gure eremuan egiteko eta erabakiak bertan hartzeko gaitasunetik.

Hori da hartu beharreko erabakia, eta euskal gizarteari dagokio erabaki hori hartzea. **LABek eskatzen du erabaki hori euskal gizartearen eskuetan jartzea, herri kontsultak deituz Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoa.**

Bestelako bide bat hartu behar dugu, bide berri bat, eta horretarako jokaleku berri bat behar dugu.

“Aplikatzen dut derrigorrezkoa delako” dioen jarreratik “ezin ditut erreforma hauek aplikatu, euskal gizarteak gaitzetsi dituelako” dioen jarrerara pasatu behar dugu.

Horregatik guztiagatik, irailaren 26an, GREBA OROKORRA!

